

tabernako azken poema

Coleridge, 18 urte

Tabernako azken poema

*Bakarrik dago munduan.
Gutunak jasotzea maite du, baina buzoia begiratzean duelarik
Hutsik aurkitu du beti.
Bere buruari idaztea deliberatu du. Gutuna sobreak sartu eta
Azaleko helbidea errepikatu du erremitean.
Kalera irten da eta, karrika hutsean prometatuz, hiriko edozein
Postaontziaren alor sartu du gutuna.
Geroztik bizpau egunez itxaron du. Gutuna ez da iritsi,
etxeko buzoian goizero begiratzen du.
Benetan bakarrik dago munduan.*

(Joseba Sarrionandia. *Han izanik hona naiz*. Bakardadea)

Duela hilabete edo hasi da etxetik ez horren urrun dagoen lantegi batean lanean, berak ikasitakoarekin zerikusirik ere ez duen lanean. Unibertsitatean lau urte luzez filologia ikasketak egin ostean fabrika zaharkitu batean lan egitea beste aukerarik ez du aurkitu. *Curriculum vitae* horietako mardoska bat bidali ditu ikastola zein eskola desberdinetara, erantzun ezkorrekin. Irakasle sobera bide daude.

Beste lanik aurkitu ez eta lantegi horretan lortu du lana. Soldata nahiko kaskarra da, baina bera bakarrik bizi denez, eta udan eta ikasketa urteetan aurrezturikoarekin, nahikoa du orain bizitzeko.

Egia esan ez dago gustura duen lanarekin, nahiko urruti dago gazteago zenean zituen ilusio eta ametsetatik. Lantegian ere hutsaren hurrengo bailitzan erabiltzen dute, “egin hau”, ekarri beste hura”, “gaurko da aizu!”. Gainera, egunero hamar bat ordu edo gehixeago sartu behar ditu nagusia gustura geratu dadin. Eta, nola ez, kexu bat izanez gero, kale gorri. Hala ere, ez dio axola egunaren zati handiena lanean igarotzea ez baitu beste ezer egiteko, ez eta inorekin egoteko. Bakarrik dago mundu injustu honetan.

Artean ume bat zela galdu zituen gurasoak auto istripu batean, ez zuen ez anaiarik eta ez arrebarik, eta izeba baten ardurapean geratu zen. Dena den, izebak ez zion arreta handiegirik eskaini ume gaixoari. Egunero jatekoa ematea eta ohe lehor bat eskaintzea berarentzat nahikoa ziren urteetan ikusi ez zuen anaiaren seme bakarra zaintzeko. Gogoan du behin gaixorik zegoela, hamar urte inguru izango zituen artean, izebarengana joan zen ondoezik zegoela eta arren medikuarengana emateko. Izebak, beraganako zuen arduragabetasuna erakutsiz, ezer ez zela eta

biharamunerako sendatuko zela erantzun zion. Biharamuna igaro zen baita egun gehiago ere, eta ondoezik jarraitzen zuen. Halako egoeran, berak herriko medikuarengana bere kabuz joatea deliberatu zuen.

Medikuak goitik behera aztertu zuen eta gaixotasun baten berri eman zion, ez omen zen oso larria baina bere burua zaindu behar zuela esan zion. Zetozen bi asteetan ohean egon beharko zuela, gustu nazkagarria zuen jarabe bat hartuz.

Etixeratzean izebari ez zion zuenari buruz ezertxo ere aipatu, izebak berak ere ez zion ezer galdetu, agian jakin ere ez zuen jakingo medikuarenean izan zela.

Hamalau bat urte inguru zituenean arratsaldeetan ikastolatik atera eta diru apur bat lortzearren denda batean lanean hasi zen salgaiak bere lekuan jartzen eta txukuntzen. Lana ez zuen gustuko, gainera esklabua bailitzan hartzen zuten baina dirua beharrezkoa zitzaion izebak ez baitzion behar adina ematen. Dendan egunerokoa amaituta etxeratu eta bere gelako bakardadean murgiltzen zen, betiere bere diruarekin erositako, edo akaso liburutegitik harturiko libururen bat irakurtzen. Betidanik zuen irakurtzeko zaletasuna, euskal idazleak zituen gustukoen Saizarbitoria eta Sarrionandia esaterako, baina Dickens bezalako idazle handien liburu bat edo beste ere irakurria zuen, agian bere istorioetako pertsonaiekin identifikaturik sentitzen zelako.

Irakurtzeaz gain idaztea ere gustuko zuen, batez ere poemak idazten zituen, kaxoian ondo gordea zuen kaiera berde batean. Bere sentimenduak, desioak, ametsak idazten zituen. Askotan barrena husteko balio ziona. Maiz pentsatu zuen idazten zuen hori behin egia bihurtuko zela, bere ametsak egia bihurtuko zirela, baina alperrik, ez zuen bere ametsik gauzatuta ikusi. Denborak aurrera egin ahala utopia hutsal bat bezala ikusten zuen bizimodu hobe bat.

Adina iritsi zitzaionean unibertsitatean hasi zen berak betidanik egin nahi izan zuen karrera burutu nahian. Horrela euskal filologiako karrera egiten hasi zen. Unibertsitatean indibiduo bat gehiago zen, klasera joan, hartu beharreko apunteak hartu eta kitto. Ez zuen inorekin harreman handiegirik izan. Ezta nahi ere, askotan hobeto sentitzen zen bakarrik zegoenean beste norbaitekin zegoenean baino.

Unibertsitateko garaian ere poemak idazten jarraitu zuen bere kaiera berdean. Baina lehen baino gutxiago, izan ere, denborarik ere ez zuen, irakurtzeko eta batez ere ikasteko gauza asko baitzitu.

Lau urteren buruan karrera amaitu eta lizentziatura lortu zuen. Uda horretan, aurreztuta zeukan diruarekin bidaia bat egin zuen Europako herrialdeetan barrena. Hilabete inguru ibili zen kontinente zaharrean hara eta hona, herri desberdinak ezagutzen. Bertako kultura ezagutzen.

Irailean itzuli zenean lantxo bat aurkitu nahi izan zuen bizimodua aurrera eramatearren. Horregatik, bere herriko ikastolara eta inguruko herrietako eskola eta ikastetxeetara bere curriculumak bidali zuen irakasle gisa aritzeko asmotan.

Inongo ikastetxetan ez zuen lanik lortu berak egiten zekien horretan. Lau urteak alperrik igaro zituela pentsatzera ere iritsi zen, hobe zuela unibertsitatera joan ordez beste edonon lanean hasi izan balitz.

Etsiturik, beste edonolako lan baten bila aritu zen azkenik herriko lantegi zahar batean lortu zuen arte. Ez zekien ezer lan horri buruz, makina bat nola erabiltzen zen ere ez zekien, baina lana onartu beste biderik ez zuen izan dirua lortu nahi bazuen.

Gaur, oraindik lantegi horretan lanean ari da. Hilabete eskas badarama ere lan hori utzi eta beste bat aurkitzeko desiratzen dago. Horrela lan egitea ez baita berak gazteago zenean zuen ametsa. Baina ez du beste aukerarik, gaur egunean zaila dago gustuko lanik aurkitzea. Zer egin ere ez dakiela dago, etsiturik, amore emateko prest.

Lana amaitu ostean, etxeratu aurretik beti joan ohi da etxetik gertu dagoen tabernara, bere penak itotzeko garagardo bat, bi agian, hartzera. Berarentzat une hau da eguneko momenturik atsegina. Mundutik deskonektatzen da tabernara sartu eta lehenengo tragua edan eta porrua erretzen duenean. Aske sentitzen da, badakien arren tabernatik irten eta betiko egoera penagarri horretara itzuli behar duela, bihar berriro lanera joan behar duela, ez duela ihes egitea lortuko mundu krudel honetatik.

Gaur ere, betiko legez tabernara joan da lan eguna amaitzean. Baina gaurkoan zama bat gehiago dauka bizkar gainean. Lanetik bota dute, nagusiak lanetik botatzea erabaki du, gogo gutxi jartzen omen duelako lanean. Noski hori aitzakia merke bat besterik ez da izan enpresa jasaten ari den krisiari aurre egiteko langile garbiketa egiten ari direla ezkutatzeko.

Gaur beraz, arrazoi gehiago du betiko tabernan bere penak ahaztu nahirik garagardo bat, bi edo gehiago agian edateko. Buru makur eta zer egin ere ez dakiela sartu da tabernara, etsiturik, amore emanda bezala.

Tabernako zokorik ezkutuenean eseri da, sartzen denak nor dagoen ikusteko ere zailtasunak dituen txoko horretan. Garagardo edalontzi erdi hutsari beste zurrutada bat eman ondoren bere kaiera berdean, gaztetatik bere poemak idazteko erabili ohi duena eta orain beti motxilan gorderik izaten duena, edozein unetan idaztea merezi duen esaldiren bat edo burura etortzen bazaio idazteko, idazten hasi berria den olerkia idazten jarraitu du tabakoaren ke artean.

Bakarrik naiz munduan
Bakarrik egunez
Bakarrik gauez.
Bakarrik
Bakardadearen munduan
Galdurik.

Hautsontzian duen porroari atxiki luze bat eman eta beste garagardo tragu bat hartu du. Ingurura begiratu du nor ote dagoen ikusteko. Ondoko mahaian bikote bat dago elkarri kontutxoak kontatzen, beste aldeko mahaian gazte koadrila bat hizketan ari da ikastolako kontuez. Gazte bat tabernako atea ireki eta barrura sartu da lagunekin bat egiteko.

Horren ezagun duen bakardadean murgildu da berriro, kaiera ireki, boligrafoa hartu eta idazten jarraitu du.

Bakardadea dut lagun
Isiltasuna adiskide
Ez dut inor ondoan
Bakardadea salbu.

Maitasun ezaren minak
Eragindako bakardadeak
Heriotzera nau kondenatu
Bizitzari ihes egin nahi diot
Patuari ihes egin nahi diot.

Heriotzak nau libratuko

Kate hauetatik askatuko.

Azken zurrutada eman garagardoari eta porroa hautsontzian amatatu du. Amaitutzat eman du poema, berak unean sentitzen duena idatzi du, bakarrik sentitzen baita azken aldian, inguruan inor ez duela iruditzen zaio. Munduan den inork ulertzen ez duela uste du.

Poema berrirakurri ostean kaiera berdea itxi eta boligrafoarekin batera motxilan sartu du. Mahaitik altxa eta eta kalera irten da.

Udazken giroa dago, giro tristea benetan. Zerua lainoturik dago, euria egingo duela dirudi. Zuhaitzetako zein lurrera eroriak diren hostoak jostari dabilta haizearekin, alde batera eta bestera. Ez da arimarik ikusten kalean, ziurrenik denak etxean sarturik egongo dira, familia giroan, goxo-goxo. Elizako ezkil-hotsek iluntzeko zortziak direla adierazi dute.

Herriko enparantzatik ezkerreranzko bidea hartu du, kostara daraman bidea. Bere gogoetetan murgildurik doa, behin eta berriz datorkio burua bakarrik dagoenaren sentimendu goibela. Munduan bakarrik dagoela ziur da.

Itsasoa harroturik dago, haserreturik dagoela dirudi, berak ere bizitza gogor bat izan balu bezala. Haizea ere zakarragoa da hemen, badirudi Neptuno bera ari zaiola ufaka aurpegian, bera ere aurka balu bezala. Hondartza eskuinetara utzi du itsaslabarrera joateko. Haizea aurka du, gogorra egiten ari zaio goranzko bidea. Bide bazterreko zuhaitzean bele beltz bat dago bidearen zaindaria bailitzan berari so. Gogoetetan murgildurik doala hor ikusi du heriotzaren mezularia, baina ez dio jaramonik egin eta bere pentsamendu etsietan galdurik jarraitu du.

Itsaslabarrera iristearekin batera lehen euri tantak erori dira. Itsasoari begira jarri da, behean harkaitz zorrotzen aurka gogor jotzen dute olatu bortitzek. Aurrerago itsasoa harrotu samar dago. Urrunean itsasontzi bat ageri da ziurrenik egunekoa amaiturik porturanzko bidean. Zerura so egin eta hor ikusi du, euripean, lehen zuhaitzean ikusi duen belea bere gainean joan-etorrian hegan.

Bizkarrean zeraman motxila lurrean utzi du eta bertatik bere kaiera berdea atera. Tabernan idatzi berria duen poema dagoen orrialdea ireki, boligrafo urdina hartu eta azkeneko lerroak idatzi ditu:

Azkenik banoa
Zorigaitzetik askatuko nauen
Mundura.

Hasieratik bukaeraraino berrirakurri ostean poema, kaiera berdetik kendu du. Labarraren ertzean jarri da eta orria zati txiki-txikitan hautsi du. Airera bota ditu zatitxoak eta haizeak nola eramaten zituen begira geratu da.

Zerura begiratu du beste behin, belea oraindik hor dabil hegaka. Eta ondoren itsasoko olatuei so egin die arroken aurka nola hausten diren ikusiz. Begiak itxi ditu. Arnasa sakon hartu eta amildegia behera erotzen utzi du bere gorpua.

Biharamunean, hor darraite oraindik kaiera berdeak eta motxilak inork aurkitu zain baleude bezala. Elizako ezkiek ez dute adierazi nahi izan inor hila dela, inork ez du inoren falta sumatu ez herrian ez eta lantegian ere.

Tabernako zoko ezkutueneko mahaia gaur hutsik dago.